


Itxaropena: euskal letren kabi goxoa

Zuzuarregi Mujika, Nagore

Itxaropena inprentak 80 urte bete ditu 2012. urtean, zortzi hamarkada. Erraz esaten da, baina urte horietan guztietan hamaika arazo eta istorio bizitakoa da Itxaropena eta baita bertan lanean aritutako Unzurrunzaga sendia ere. Patxi Unzurrunzagak, Emilio Alkortak eta Bonifazio Illarramendik zabaldu zuten Itxaropena 1932. urtean Zarautzen. Berehala, Patxi Unzurrunzaga bakarrik geratu zen negozioaren gidaritzan eta ordutik hasitako lanak ez du etenik izan, orain honen ondorengoek jarraitzen dute negozioan burubelarri. Hasiera batean inprenta izanik argitaletxe bihurtu zen bakarra dugu, nahiz eta gerora, egoera berrietara moldatu beharra izan zuten, eta gaur egun bere jarduera berriz ere inprenta lanetara soilik



Sabino Iruretagoyena, Manuel Elorza eta José Manuel Dorronsoro. (Argazkia: Itxaropena artxiboa)

bideratzen duten. Halere, Itxaropenak egindako lana azpimarratu behar da batez ere. Itxaropenaren garrantzia ez da askotan aipatua izan, baina onartu behar da euskal literaturgintzako altxorrik preziatueneak bertan ikusi dutela argia. Garai samurretan bertan lan egindako jende askoren lanari esker, eta batez ere, Patxi Unzurrunzagaren ausardiari esker.

Euskal Herriko XX. mendeko historia harilkatu duen hari aipagarrienetako bat izan da Itxaropena, batez ere, Euskal liburugintzan eta euskararen alorrean. Garai gogor eta konprometituak bizitakoak dira. Itxaropena sortu eta gutxira, gerra zibilak eskuetan zituzten jarduerak errotik zapuztu zituen, baina Unzurrunzagak beti euskararekiko azaldutako ardurak, aurrera egiteko nahikoa kemen eman zion. Gerra aurretik, argitaletxe honek euskarazko liburuak eta euskal gaien inguruko liburugintza jorratzen zuen batez ere, erlijio gaiei buruzko liburuekin batera. Gerra ondoren, egoera erabat aldatu zen arren, Unzurrunzagak ekindako bide horri eustea erabaki zuen garaiko zentsura guztiei aurre eginez. Hain zuzen ere, horixe da Itxaropenari eskertzen zaiona: gerra osteko zentsurari aurre eginez, euskarazko liburuak argitaratu izana eta euskal literaturgintzari eustea. Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako kantuak dioen legez; “kabirik gabe negu hotzetan zebilen, euskarari etxe bat egin zioten”. Patxi Unzurrunzagak Itxaropena inprenta atzean zuen *txabolan* egin zion lekua euskarari hain justu ere.

Itxaropena liburugintzan espezializatutako moldiztegia izan da beti eta horrela jarraitzen du. Moldiztegiko tailer lanari dagokionez 40ko hamarkadaren amaieran sartu ziren berun urtuzko Typographeak, eta 50ekoan Linotipea. Gero etorriko ziren litografia, fotokonposizioa, eta azkenik ordenadore bidezko prozesua.



Goian tente: Isidro Zuazobide, Mateo Oyarzabal, Jesús María Unzurrunzaga, José Ormazabal, Francisco Unzurrunzaga, José Miguel Aramburu, Joaquín Juaristi eta Sabino Unzurrunzaga. Erdian: Sabino Iruretagoyena, Lourdes Azcue, Manuela Eizaguirre eta María Dolores Osa. Behean makurturik: Eusebio Beristain, José Urquia, María Teresa Unzurrunzaga, Agustín Echave eta Santiago Aizpurua. (Argazkia: Itxaropena artxiboa)

Garai hartan egindako jarduerari dagokionez, gehien gorai patzen den lana Kulliska sorta da 1952. urtean abiarazitako proiektua. Euskal idazle askok bertan eman zituzten ezagutzera beraien lanak, baina hemengoz gain kanpoko idazleen lanak ere euskarara itzulita irakurtzeko aukera izan zen. Hauez gain, bertsoak, antzerki-lanak etabar, plazaratu ziren guztiak euskaraz oso osorik.

50. hamarkadatik aurrera euskal idazleen lan kopurua mardultzen hasi zen, euskaraz idazten zuten idazle gazteen taldea ere handitzen zihoan eta gizarte mailan ere euskararen aldeko elkarte eta mugimenduak sortzen hasi ziren, horren adierazleetako bat 1965ean Durangon egin zen lehenengo liburu eta diska azoka eta 1964ean klandestinitate garaiko lehen *Aberri Eguna* Gernikan.

Honekin guztiarekin, frankismoaren azken urteetan 1970. hamarkadan gutxi gora behera, euskal argitaletxe berrien sorrera etorri zen: Jakin, Gero, Elkar... Gerra ondorengo lehenengo lehorre garaietatik asko aldatzen hasi zen euskal liburugintza. Egoera berri honen aurrean Itxaropenak ezin zituen beste argitaletxeen liburuak inprimatu, beraiek ere argitaletxe izanda. Beraz, ordura arteko argitaletxe jarduera alde batera utzi eta inprimategi lana, berrien zerbitzura jartzea erabaki zuen. Aldaketa garai hauek iritsi zirenean Patxiren seme Sabinekin hartu zuen lekukotza Itxaropenaren zuzendaritzan.

Azken aldaketa handia 1986an egin zuten, fisikoki zaraizko Herrikobarra kaltetik, Araba kaleko 45.era aldatu zirenean. Ordutik bertan darraite, liburugintza lanetan jarraitzen du hirugarren belaunaldiak ere, teknologia berrietara egokitzen eta grafikagintzaren merkatu gogorrari eusten. Aitonak hasitako lanari jarraitzen dio Pello Unzurrunzagak, beti ere argi izanez, Euskal kultura idatziaren testigutzari eutsi izana eskertuko zaiola Itxaropenari.

1. Zentsura garaia

Gaur egun gure etxeetan euskaraz idatzitako nobela liburuak ikustea arrunta egin ten zaigu, liburutegietako apalategietan euskarazko haur-liburu asko topatzea ohiko kontua da, euskal liburuak plazaratzen dituzten argitaletxe asko ezagutzen ditugu, baina bidea apika apika egin da. Garai luzeetan euskararen presentzia ez zen onargarria eta Euskal liburugintzak garai oso ilunak bizi izan zituen, batez ere, 1936ko gerraren ondoren.

Frankismoaren garaiko hizkuntza politikan euskarak ez zuen lekurik, ezta funtzio kulturalik ere. Egoera itogarria izan zen euskal letrentzat. Eta ondorioz, administrazio haren erabakiek eragin negatiboa izan zuten euskal argitalpenetan.

Hala ere, izan ziren gerra zibilarren ondorengo garaietan euskarari eutsi zioten gizon gutxi batzuk. Horietako bat Patxi Unzurrunzaga izan zen.

“Inprimategi honek batzuen artean ospea badu ere, bere sortzaile eta nagusiak ez du izan behar adina ospe, bera ez baizen idazlea. Horregatik, egunkariak ere kasu gutxi egin zioten bere heriotzean”, horrela dio Juan San Martinek Egan aldizkarian. “Gerra ostean bizi izan zituen Patxi bere urterik latzenak. Lanik apenas falta zitzaion, industrietatik lan asko baitzuen, baina euskarazko liburuak argitaratu ezinak mintzen zuen gizona”, gehitzen du.

Basarriren hitz batzuk ere isladatzen ditu artikuluko berdinean:

Bereak eta bi ikusi zituen Patxi k gerra ondorengo urte aietan. Ain euskaltzale sutsua zanez, eta liburuak argitaratzea bere lanbidea, pentsa nola ibili bearko zun. Gurutzean josita zegon euskera. Azaltzeko moduak egin nahi zitun; benetako euskaltzaleen egarria ase nai zun. Nundik nora asi, etxeakoak eta kanpokoak ain gorrotogarri jotzen zuten urte negargarri aietan? [...] Asko zor diogu euskaldunok Patxi ren osotasunari, euskaltzaletasunari. Ordurik estuen eta larrietan bete zun bere eginkizuna, gizonki ta euskaldunki. Garai artan, euskeraz zerbait irakurri nahi zunak, Itxaropena Argitaldარიengana jo bearra zeukan.

Hitz hauek argi adierazten dute Patxiaren euskararekiko ardura.

Esan dugun moduan 1932an sortu zuten Itxaropena argitaletxea. Guztia Editorial Vasca Zelaia & Lagunak itxi zutenean hasi zen. Bertako langile izan ziren hiru lagunek, Patxi Unzurrunzagak, Emilio Alkortak eta Bonifazio Illarramendik tipografiari zegokion zatia alokatu eta Itxaropena izenez ireki zuten beste bat, Zarauzko Herriko barrua kalean (orduko Victor Pradera). Aipagarria da Itxaropenaz gain Zarautzen inprenta asko zeudela orduan: Elustondo, Eleuterio Quintanilla, Martiarena, Bikmar, Uribe, Otzarreta, Graficas Abendaño eta Ilba.

1934an, Alkortak eta Illarramendik lan hura utzi eta Patxi Unzurrunzagak barririk eutsi zion negozioari. Erabaki horretan garrantzia handia izan zuen Bernardo Estornes Lasak. Honek aholkatu baitzion Patxiri bere kontura lanean jarraitzeko, berak lana emango ziola eta. Estornes izan zen Itxaropenaren lehenengo bezero eta bultzatzaile nagusia. Honek zuzentzen zuen “Zabalkundea” bilduma fundazioak babestuko zuela adierazi baitzion.

Itxaropenaren ibilbidean bi etapa nabarmendu behar dira. 1936ko gerra aurrekoa lehenengoa, eta gerra ondorengoa bigarrenengoa. Gerra aurretik euskaraz eta erdaraz liburu mordoxka eman zuen argitara Itxaropenak, euskal kulturaren arlokoak denak: Txomin Agirreren *Garoa*, Orixeren *Barne muiñetan*, Zaitegiren *Tori nire edontzia*, Joxe Migel Barandiaranen *Euskalerriko leen gizona...*, Arturo Campionen *Blancos y negros*, García Almoraviden *El Genio de Navarra eta Narraciones bascas*, Joxe Migel Barandiaranen *El hombre primitivo en el País Vasco*, Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* eta abar. Itxaropenak “Egja Sorta” 1934. urtean hasi zuen Beñat Idaztiakekin.

1936. go gerra zibilaren ondoren, Itxaropenaren beste etapa bat hasi zen. Euskal literaturak loraldia izan zuen gerra aurretik, baina, ondoren, izugarrizko zuloa egon zen. Hego Euskal Herrian egoera tristea zen oso, beltza.

Euskararen presentzia publiko guztiak ezabatu egin ziren: erregistroetatik, kaltetik, etxe-izenetatik, itsasontzietatik, elizatik, kanposantuetatik. Exilioan eslogan gisa erabili ohi zen esaldiak egoki zioen:

[...] frankismoak sehaskatik kanposanturaino pertsegitu du euskara. Eta gainera, hori gutxi ez balitz, prentsa frankista eraso batean aritu zen hiruzpalau urtez euskararen aurka,

honoraxa dio Torrealda berak Artaziak liburuan. Unzurrunzagaren negozioari ere izena aldatu zitzaion, lcharopena. “Hemen egindako euskal kultura gehiena apaizen esku geratu zen. Apaizek ekartzen zizkioten lanak gure aitari: Villasantek, Lekuonak, Mitxelenak. [...] Apaiz ez ziren batzuk ere baziren: San Martin eta La-

baien, kasu,” oroitu zion Sabin Unzurrunzagak Egunkarian Juan Luis Zabalari. “Izan ere, gerra aurretik aitak bazituen lagunak liburugintzaren inguruko munduan, baina euskal kazetagintzan edo literaturan zebiltzan gehienak ezkertiarak ziren, edo abertzaleak, eta gerra ondoren espetxeetan edo erbesteran zeuden”.

Idazle askok erbesterako bidea hartu zuten, baina Unzurrunzaga familiak Zarautzen geratzea erabaki zuen eta nola hala hemen geratu ziren euskaltzaleen bilgune izan zen Itxaropena: Azkue, Orixe, Lekuona, Koldo Mitxelena etabar beste hainbaten artean. Herrikobarra kaleko inprimategi atzeko txabola izan zen idazle askoren topaleku eta zenbait originalen ezkutalekua ere. Halere, zenbait liburu eman zituen argitara, baina batez ere, eliz liburuak (misalak, noberarioak...).

Hainbat eta hainbat dira Itxaropenan lan egin zuten zarauztarrak, Agustin Etxabe izan zen horietako bat. 1938. urtean hasi zen lanean hamalau urte zituela. Bi pezetaren truke hasi zen pintxe lanetan eta inprentako tipografo izatera heldu zen eta horrela gogoratu zuen Txaparro aldizkarian: “Gu euskal liburuak argitaratzen lehenengoetarikoak izango ginen; Itxaropena izango zen euskararen alde zentsura garaian lan gehien egin zuena”.

Ekoizpen kulturalari begiratu gero, egoera negargarria zen, Espainiako mugetan. Gerra ondorengo hamabi urteetan euskarazko 12 liburu atera ziren, gehien-gehienak liburu erlijioso apalak: kristau-ikasbideak, deboziozkoak eta ezer gutxi gehiago.

Ez zen erraza zentsuraren hatzaparretatik ihes egitea, baimenak beharrezkoak ziren eta askotan zaila izaten zen oztopo hori gaintitzea. Beraz, beste bide batzuk erabili behar izaten ziren zenbait liburuk argia ikus zezaten.

Horrela, zenbait elizliburu inprimatzeko lizentzia datak faltsututa irten ziren klandestinoki. Beste zenbait liburu inprentatik atera aurretik bahitu zituzten eta zorte txarragoa izan zutenak ere badira, *Sabin Euskaldunaren* ale guztiak adibidez, Itxaropenako gillotinan bertan txikitu zituzten. Hauek gerra aurreko ikastoletarako Itxaropenak argitaratutako liburuak ziren. Guardia Zibila etorri gillotina eta gillotineroa hartu eta bertan txikitu zituzten, ia alerik geratu gabe. Sabinekin bat gorde zuen, baina orain erlikia bat da. *Sabin Euskalduna* Bernardo Estornes Lasak prestatu zuen Agustin Zumalabarekin batera, Isaac Lopez Mendizabalen *Xabiartxo* agortu zenean.

Bahitu zituztenen artean Santi Onaindiaren *Milla Euskal Olerki*, *Eder* liburua da bat. Musikari eta Euskal abestiei buruzkoa zen, baina tartean Sabino Arana Goiriren olerkiren bat sartu omen zuten eta horrek bere ondorioa izan zuen. Baina dirudenez ez zen hori izan liburua bahitzearen arrazoi bakarra, Santi Onaindiak ez zuen liburuaren zentsura tramiterik egin, eta baimenik gabe atera zen. Kontua da edizioa irten bezain laster hasi zirela errexisak eta salaketak. Komentuetan eta baserrietan gorde ezin izan zirenak bahitu egin zituzten beraz, horrelaxe azaltzen du Imanol Unzurrunzagak Patxiri buruzko bidegileak liburuan. Baita ondorengo hau ere:



[...] handik urte batzuetara, Donostian Informacion y Turismo-ko bulegoetan garbiketa lanak egiten zituen emakume baten bidez berreskuratu ziren ehunka liburu. Emakumea Amarako fraide karmeldarregana joan zen liburua eskuan zuela, bere ardurapeko sotoetan horrelako paketeak pilatuta eta inoren kontrolik gabe zeudela adieraziz. Garbitzaileari aleko ogerleko bat emanaz berreskuratu zituzten haiek guztiak.

Erabilitako trikimailuen beste adibide bat ageri zaigu Loiolarik ez balitz liburuan ere:

Patxi Unzurrunzagak Zarauzko inprentan askotan gezurretako lizentziaz-eta argitaratzen zituen elizako liburuak eta dotrina bakarren batzuk [...] Tartean, datarik gabe, baita Muxikaren Fernando Amezketarra ere, Karmelo Etxe-garairen hitzaurreaz, 1927koaren berrargitalpen pirata. Editoreak berak egina!



José Manuel Guesalaga eta Santiago Aizpurua. (Argazkia: Itxaropena artxiboa)

Oraintxe kontatutako istoria asko geratu ziren isilpean Itxaropena zaharreko eraikineko lau pareren artean. Ez ziren aise ateratzen lan asko, baina Patxi euskararen aldeko apustu ikaragarria egin zuen. Askotan lan hura ia militantea izan zela ere esan daiteke. Luis Mari Aranburu izan zen Itxaropenako beste langileetako bat, 1960. urtean hasi zen lanean eta honek ere une zailak ditu gogoan Txaparro aldizkarian dioen moduan: “Itxaropenak egindako lana arrisku handikoa izan zen,

dena galtzeko pausoa eman zuen ezeren truke, meritu handia izan du horrek. Gaur egun, inork egingo al luke hori?”. Kontuan izan behar dugu, garai gogor haietan euskaraz inprimatzea ez zela negozioia, eta Patxiren euskalzaletasunari esker atera zi-rela liburu asko, baina ez benetan errentagarriak zirelako. Sarritan Maria Goikoe-txea emaztearekin eztabaidak izaten omen zituen, isun bat bestearen atzetik ordaindu behar izaten zituztelako, abisurik gabeko bisitak, deklaratzera deiak, salaketak etabar. Baina Patxi ez zuen etsi. Datu gisara, Francoren aurreko hogeitreetan 593 liburu argitaratu ziren euskaraz, Francoren garaiko lehen hogeitreetan 278 liburu.

Euskarazko liburu asko argitaratu zituen irabazpenari begiratu gabe, agintarien aurreko debekuei jaramonik egin gabe, euskararen etorkizunaz eta bere kultur edukinez kezkaturik. Lan garrantzitsua benetan Patxi Unzurrunzagak euskarazko liburugintzan egin zuena. Bere eragina kontuan hartzekoa da Euskal literaturaren historian, idazlearen lan soila ez baita nahiko, garrantzitsua bada ere, literatura bultzatzeko. Inguruan argitaratzaile gogotsu baten nahia ere beharrezko da. Hori da guk Patxi Unzurrunzagari zor dioguna [...],

gogoratzen du Juan San Martinek Egan aldizkarian.


Patxi Unzurrunzaga orduko euskalzaleen artean mentalitate irekienetakoa izan zuenetako bat izan zela ere nabarmendu behar da. Horren adibide garbienetakoa bat Arestiren Harri eta Herri liburuarekin ikus dezakegu. Liburu hau ohikoak baino apurtzaileagoa zen, eta liburua zen bezalakoa zelako inon argitaratu ezinik zebilen nahiz eta liburu saritua izan. Azkenean Juan San Martinek utzi zituen originalak Patxiren eskuetan eta honek plazaratu zuen azkenean liburua bultzada handirik gabe.

Orduan ez zeukan fama onik Gabriel Arestik, ezkertiarra zela-eta batzuek ez zuten gogoko, eta nik konbentzitu nuen Patxi Unzurrunzaga liburua atera behar zela. Hitzaurrea idazteko eskatu zidan eta halaxe egin nuen. Nire hitzaurrearekin atera zen liburua,

aipatzen du Juan San Martinek Egan aldizkarian.

Honekin batera, *Peru Abarka*-ren argitalpena ere bultzatu zuen San Martinek, Eibarren Juan Antonio Mogeli buruz hitzaldi bat eman eta gero.

Hala ere, Itxaropena argitaletxea Zarautzen kokatua egoteak eta udako-opor leku izateak, bere eragina izan zuen euskal literaturgintzan. Izan ere, Pedro Rocamorak, Francoren Gobernuko Espainiako Prentsa eta Propaganda buruak, kostaldeko herrirka honetan pasatzen zituen udak. Patxi Unzurrunzagak eta Joxe Artetxek pentsatu zuten agian errazagoa gertatuko litzaiekela argitalpen lizentzia Rocamora-rekin hitz eginez lortzea, Francok Donostian zituen morroiak baino okerragoa ez zela izango eta. Horrela bada, Pello Unzurrunzagak dioen moduan, Rocamora-rengana hurbiltzeko Patxi noizean behin arrantzatutako txibiai saski batean oparitzen zizkion eta azkenean jaso zuten euren etekina. 1947ko irailaren 9an, Zarauzko Euskal Jai giroan, bilera bat egin zuten Propaganda buruaren etxean Patxi Unzurrunzagak, Joxe Artetxek eta Pedro Rocamorak berak. Orixeren *Euskaldunak* poesia liburua argitaratzeko baimena eskatzera joan ziren. Baita lortu ere. Patxiren biografia liburuan azaltzen da sinestezina egin zitzaizela biei han ikusi eta entzundako. Kalera irten aurretik, emozioari eutsi ezinik, etxe hartako portalean bertan besarkada estu-luzean lotu zirela Joxe eta Patxi hitzik esan gabe. Lortu zutenaren garrantziaren jakitun.



Euskal argitalpenei zirrikitua ireki zien honela, originalak zuzentzeko Donostiara bidali beharrean, Madrila bidaltzen zituzten zuzenean eta Rocamoraren lizentzia hemengo zentsura guztien gainera zegoenez Bera-Mendizabalen *Euskal-Erdel Iztegia* (1948), Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu Euskal Poema* (1949), 36ko uztailean kalera ateratzeko gertu zegoena, eta Orixeren *Euskaldunak* (1950) argitaratu ahal izan ziren. Orixeren *Euskaldunak* zazpi lurraldeetako armari eta guzti!

Pelok berak erakutsi ahal izan dizkigu bere bulegoan, oraindik altxor preziatu bezala gordetzen dituen Rocamoraren garai haietako baimenak. Baina, batez ere, Itxaropenak sortutako Kuliska Sorta bildumak argia ikus zezan erabakiagarria izan zen baimen hura. Gure literaturarentzat oinarritzko bilduma, Gorka Arrese editoreak *Txaparro* aldizkarian zioen moduan.

70. hamarkadan Itxaropena argitaletxearen amaiera etorri zen aurrerago aipatu dugun moduan. Iada negu luzea amaitzen hasia zen eta udaberriak argitaletxe berrien loraldia ekarri zuen eta baita ordura arte existitu ez zen konpetentzia ere. Unzurrunzugatarrek argitaletxe jarduera utzi eta sortu berri ziren argitaletxeen zerbitzura jarri zuten inprenta.

2. Kuliska sorta

Itxaropena kabiko txori kuttunena kuliska da. Kuliska txikia itsasertzean ibiltzen den eta arrain txikiez elikatzen den hegazti zangaluzea da. Izango du honek zerikusirik Patxiren arratzazaletasunarekin. Inoiz topatuko zuen bat edo beste zarauzko hondartzako itsasertzean neguko haize hotzetatik ihesean, Afrika aldeko eguraldi goxoagoetara. Berak ere epeltasun horixe eman zion euskarari Kuliska sortako orrialdeetan babestuz.

Euskal bildumetatik Kuliska Sorta da euskaldunen artean preziatuenetariko bat, batez ere, plazaratu zen garaiagatik eta autore euskaldun askoren sormen lanak ezagutarazteko bidea izan zelako. Gerra ondoren euskaraz ia libururik ez zen aurkitzen, ausardia handia behar zen horretarako. Horregatik garrantzia handikoa izan da Itxaropenaren lanean bilduma hau, hain zuzen, horixe da azken urte haue-tan saritu izan dena.

Patxiren ilusiorik handienetakoa izan zen bilduma hau, amets bat. Ederki azal-tzen du Imanol semeak Patxiren biografia liburuan:

Mimoz tratatu ondoren hezuramaitzen ziren liburu-sortako aleak banan-banan, pausoz pauso Itxaropenan. Lehenik, originalen aukera oso delikatua zen, susmorik txikiena ere sortarazi behar ez zuena [...] gero etorriko ziren folio ziriborratuak, kaxa, linotipia, probak, galeradak, egilearen jorratze-lanak, bigarren probak, maketazioa, inprimaketa, pleguak tolestu, itsatsi, josi, estalkiz jantzi, argitara et aplazara [...] ume jaioberria bailitzan ospatzen zen alerik ale aitonaren inprenta atzeko txabolan.

1952an argitaratu zen Kuliska Sortaren lehen alea, Aita Plazido Mugikak euskaratutako Svenssonen *Noni eta Mani* nobela. Amaiera 1973. urtean eman zitzaion S. T. Rekalderen *Idahon artzain eta euskaldun* liburuarekin.

Bilduma 76 liburuk osatzen dute. Urtero bizpahiru liburu argitaratzea lortu zuen Itxaropenak, datu honen garrantzia aipagarria da orduko egoera kontuan izanda eta euskararen prestigio eskasagatik “Basamortu honetan oasiaren pare izan da Kuliska Sorta liburu-saila 1952an martxan jartzea. Itxaropena da urtealdi osoan euskal liburu gehien inprimatu duena, eta zer esanik ez lehen aldiari”, dio J. M. Torrealdaik bere Artaziak liburuan.

Ordurako jendartean ezagunak ziren autore askoren liburuak ikusi zuten argia bilduma honetan; Mogel, Emeterio Arrese eta Domingo Agirre egileen *Garoa* eta *Kresala*, hurrenez hurren. Gerra aurreko zenbait idazlerenak ere bai Antonio Labayen, Luis de Jauregui, Eusebio Erkiaga eta Manuel Lekuonarenak. Eta hauekin guztiekin batera belaunaldi berrientzako ere euskarri ezinhobea izan zen Kuliska Sorta beraien lan berriak plazaratzeko, hauen artean, Jon Etxaide, Juan San Martin, Gabriel Aresti, Dominique Peillen etabar.

Kuliska Sortak bi literatura esparru zituen; batetik, itzulpenak, eta bestetik, sorkera: bertsoarritza, olerkia, entsegua, antzerkia... Itzulpenetan, ezohiko obrak itzuli ziren euskara, aipagarrienak Hemingwayren *Agurea eta itsasoa*, Pio Barojaren *Santi Andia*ren *ezinegonak* eta Camilo Jose Celaren *Pascual Duarte*.

Azken honi gainera ilusio handia egin zion Patxik bere liburu euskaraz argitaratu zedin erakutsitako gogoia. Izan ere, kaleratu ahala sortu zitzaion Patxiri liburu hori Kuliska Sortari gehitzeko gogoia. Urte haietan Zarautzen bizi zen, erbestetik itzuli berria Koldokika Jauregi, Jautarkol, moja karmeldarren kapilau, eta honek burutu zuen itzulpen lana. Argitaratzeko baimenarekin 1967an Celak lerro hauek igorri zizkion Unzurrunzaga jaunari: “Me ilusiona imaginarme a Pascual Duarte vestido, algún día, con el viejo y noble ropaje de la lengua eúscara”, horrela azaltzen du Pergolan Jose Luis Padronek.

Sorkerari dagokionez, Gabriel Aresti idazle gaztearen *Harri eta Herri* (1969) aipatu dezakegu. Eta bertsoarritzan, Basarri, Otaño eta Xenpelar bertsoarien bertsoak zabaldu zituen Kuliska Sortak bere orrialdeetan.

Esan bezala, erbesteratuak izan ez ziren euskaldunen bilgune izan zen Itxaropena eta Kuliskan ditugu horietako asko. Orixe, Zaitegi, Koldo Mitxelena, Aita Villasante eta Resurrecion Maria de Azkue batzuen artean.

Juan San Martinek ere badu Kuliska sortan libururik *Zirikadak* (1960) eta *Ez-tenkadak* (1965), baina horretaz gain aipatu behar da gertuko laguntza handia eman ziola Patxi Unzurrunzagari eta era askotakoa gainera, lehen aipatu dugun Arestiren *Harri eta Herri* adibidez berak bultzatuta atera zen aurrera.

Bilduma osotik liburu azpimarragarrienak 1950etik 1960ra doan hamarkadakoak dira, gerra osteko euskal liburugintzaren lehen urratsak izan zirelako. Hor kokatzen dira adibidez, Jon Etxaideren *Joanak joan* (1955), *Hamasei seme Euskalerriko* (1958), *Itxasoa laño dago* (1959); eta Salvatore Mitxelenaren *Arraun ta amets* (1955).

Kuliska bildumako liburuetan mota guztietako gaiak azaltzen dira. Egia da Juan Luis Zabalak Egunkarian Patxiren seme Sabini egindako elkarrizketan zioen moduan, Kuliska sortaren hasierako liburuek ez zutela kutsu politiko handirik. Izan zezaketen gaitz bakarra euskaraz eginak izatea zela, eta hori bera ere ez zen gaitz

txikia batzuentzat. Baina urteek aurrera egin ahala gero eta indar handiagoz agertzen hasi ziren politika gaiak. Hala ere, zentsore haiek ez zuten euskara oso ondo ezagutzen eta ez zuten eragozpen handirik jarri liburuak atera zitezten.

3. Estornes anaiak

Patxi Unzurrunzagaren negozioan giltzarri izan zen Bernardo Estornes. Hasieran esan dugun moduan, honek lana emango ziola eta Itxaropenarekin jarraitzeko esan baitzion. Bernardo eta Mariano Estornes Lasa anaiek proiektu asko gauzatu zituzten, horien artean, Donostian sortutako Zabalkundea elkarte kulturala. 1933ko maiatzaren 4an abiatu zen ekimen hau helburu garbi batekin, Euskal Kulturaren has-tapen biblioteka bat argitaratzea alor ezberdinetako eskuliburuak sortuz: geogra-fia, historia, literatura, antzerkia, zuzenbidea, arte ederrak, soziologia, pedagogia, linguistika etabar. Bertan egindako lan guztia plazaratzeko inprenta bat behar zu-ten eta Itxaropenarekin etengabeko lankidetzan egon ziren.

Zabalkundeko lehen aholkularitza kontseilua Angel Irigaray, Jose de Arizti-muño, P. Alzo eta Jose Miguel Barandiaranek osatu zuten, “Beñat Idaztiak” argi-taletxearekin elkarlanean, azken hau ere Estornes Lasa anaiek sortua. Itxaropenak “Egia Sorta” 1934. urtean hasi zuen Beñat Idaztiakekin.

Zabalkundea bildumaren barnean Estornes-ek 1935. urtean *Historia Vasca. Euskal Edestia e indumentaria vasca* argitaratu zuen. Bertan argitaratutako beste izenburu batzuk: Campionen *Blancos y Negros* (1934), Barandiaranen *El hombre primitivo en el País Vasco* (1934), Campionen *Narraciones Vascas* (II.,1934), Altadillen *Castillos medievales de Navarra* (1934), *Historia de la Monja Alferez Catalina de Erauso* (1934), Domingo Aguirren *Garoa* (1935), Thalamas Labandibar-ren *Narraciones Vascas* (III.,1935), *Aspectos de la vida profesional vasca* (1935), J. de Urkina *Ariztimuñoren Elerti* (1935) eta *La democracia en Euzkadi* (1935), Manuel Lekuonaren *Literatura Oral euskerica* (1936), Campionen *El genio de Navarra* (1936) eta *Don Garcia Almoravid* (1936) eta Altadillen *castillos...* (III.,1936) dira. Guzti hauek Itxaropenan bertan inprimatu ziren, Estornes Lasa eta Unzurrunzagak hitzartuta zuten elkarlanagatik. Zuberoaren foruen inguruko edizio bat ere prest zegoen iada argia ikusteko, baina gerrak errotik hautsi zuen proiektu honen jaiotza.

Estornes Lasaren benetako nahia, asmo handiagoko proiektu bat izan zen beti. Aurretik egin zuen lan guzti horren atzean, denbora luze baten ondoren Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco izango zen horren prestaketa baten zertzeladak igartzen ziren.

1935-1936 urte artean Estornesek proiektu honen lerro nagusiak marraztu zituen. Horrekin batera garai hartan Euskal kulturarekin harreman estua zuten per-sonekin osatutako lantaldea osatu zuen: Aranzadi, Ariztimuño, Azkue, Barandiaran, P. Donostia, Echegaray, Garate, Irigaray, Campion, Lafitte, Lecuona, Orixe, Vey-rin etabar. Egitasmo honen zirriborroa lekukotasun gisa jaso da, baina ezin izan zen hura aurrera eraman gerrak erditik moztu baitzuen jarduera oro. Halere, ziren ga-

raiak izanda ere, Estornes anaiek “Academia Errante” elkarte kulturalaren ekoizpen interesgarri eta ausartak argitaratu zituzten, hauek ere Patxi Unzurrunzagaren Itxaropenan.

Gerra garai deseroso haietan Estornes anaiak Santiagoko Txilera erbesteratu ziren eta 1958. urtean itzuli ziren. Behin etxera bueltatuta, etendako jardueri ekin zien berriz, horien artean 1959. urtean zehar “Auñamendi bilduma” plazaratu zen Itxaropena argitaletxearen inprenta oinarekin. Hortik gerora, Auñamendi argitaldaria bera sortu zen, nahiz eta Auñamendi izena nahiko ezaguna zen Zentsura erakundeetan. Hurrengo pausua gerra aurretik Estornesen buruan egikaritzen hasia zen proiektua gauzatzea izan zen, eta horrela “Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco” inprimatzen hasi ziren, hau ere, iada ezaguna dugun Itxaropenan halabe-harrezko arazo ugari aurre eginez.

Urte gogoangarria izan zen 1963a Estornestarren argitaletxean. Jorge Oteizaren eta Estornesen artean harreman berezia sortu zen, bikainki egin zuten bat eta Auñamendiko “Azkue bilduman” orduko gizartean, eta batez ere gazteengan, talka handia eragiteko helburuarekin plazaratu zuten liburua bat: “Quosque tandem...! euskal arimaren interpretazio estetiko”.. Euskaraz “Noiz arte (abusatuko duzu gure pazientziak, Katilina) ?” esanahia du, bere helburua euskal anima hiltzen ez uzteko, errespetatzeko eta errekuperatzeko noiz arte itxaron behar den oihukatzea zen. Liburu hau eskulturaren esperimendua amaitu 1959an, eta handik gutxira idatzi zuen bere ondorioen berri zabaltzeko. Lehenengo hitzaurrean Europar eta Espainiar guztiek haien jatorri euskalduna, anima euskalduna, ezagutu eta errespetatu behar dutela dio, baita euskaldunek ere. Garai honetan hasten dira entzuten baita ere Celaya, Otero, Figuera, Martin Santos eta Aresti. Euskara eta euskal kutsuaren aldeko giza mugimenduen aztoramendua eta ekimenak hasten dira alor guztietan, adibidez, Gernikako lehen aberri eguna antolatzen da eta baita Lehenengo Durangoko Liburu eta Disko azoka.

Gerra ondorengo urte guztietan euskal liburugintzaren alde egindako lan guztiaren ondoren, zerbait izugarria izan zen Durangoko azoka. Mugarri bat izan zen. Durangoko Liburu eta Disko azokaren lehenengo edizioa, 1965eko azaroaren lehenegian egin zen. Sortu berri zen durangaldeko Gerediaga Elkartek antolatu zuen lehen ekitaldietako bat izan zen. Frankismoaren diktadurapean azokak helburu nagusi argia zuen: Euskal Herriko liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera ematea. Gerediaga Elkartek, baina, ahalegina egin zuen Durango egun horietan euskalgintzan jardunean zebiltzanen topalekua izateko.

Lehenengo Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka Andra Mariko elizpean egin zen eta abenduan ezik, azaroaren 1ean, Domu Santu egunez. Elizpean merkaturatua izaten zen larunbata goizetan eta lehenengo urte hartan ere goizez ohiko merkatu egin zen. Arratsalderako, bizpahiru orduko lanen ondoren, prest zegoen liburu eta diskoen azoka. 19 erakusle izan zituen hasierako Azokak eta 1974. urtera arte Andra Mariko elizpean egin zen urtez urte Azoka.

Noski, Itxaropenaren erakusmahaiak han izan zen eta Estornestarren Auñamendi argitaldaria ere bai, azken hau, Euskal Herriko argitaletxe nagusienaren izenean joan zen. Euskal letren bilgune izateaz gain editore ezberdinen topaleku ere

izan zen, eta ondoren ikusi dugun moduan euskaldunek ere asko eskertu duten ekimena. Urteroko erromesaldia bihurtzen baita euskaldun askorentzat Durangoko azoka abenduko lehen egunetan.

Hasieratik, euskaraz eta euskal munduaz ere zerikusia duten ekoizpenen erakusketa eta salmentarako azoka izan da. Liburuak eta diskoak nagusi ziren hasierako urteetan, gerora DVD, bideo eta euskarri diferente askotako ekoizpenak jarri dira ikusgai eta salgai.

Auñamendi argitaldარიaren ekoizpena oso mardula eta garrantzitsua da eta gainera euskal kulturako autore ezagunen lankidetzat izan du beti kolaboratzaileen artean. Auñamendi bilduma entziklopediarekin batera, euskal kulturaren inguruan egindako ekoizpen ahaleginik garrantzitsuenetariko bat dela esan daiteke. XX. mendean hasitakoa eta XXI. ean jarraipena izan duena. Eta nabarmendu behar dugu lan guzti honen atzean Estornes eta Unzurrunzagaren arteko hartu emana oso garrantzitsua izan dela gerra ondorengo urte luze guzti horietan. Estornesen buruan ereindako proiektu asko gero Itxaropenako inprentako makinetan egin baitira errealitate.

Bilduma hau izen bera duen argitaldaria argitaratzen du eta Bernardo Estornes Lasak zuzendua izan zen bere hastapenetan. Estornes erbestetik itzuli ondoren, 1958. urteko azaroan abiatu zen bilduma honen lehen zenbakia, Mariano Estornes Lasaren "Oro del Ezca" nobelarekin, izandako arrakastaren ondorioz berri argitaratu behar izan zena. Ehun zenbaki baino gehiago ditu bilduma honek, batzuk bi hizkuntzetan euskaraz eta erdaraz, eta beste zenbaitetan frantsesez ere bai. Gehien landu diren gaiak orokorki hauek izan dira: historia, hizkuntza, ahozko eta idatzizko literatura, antropologia, dantzak eta nobela.

Autoreei dagokien aldetik aipagarriak dira besteak beste: Koldo Mitxelena, Manuel Lecuona, Julio de Urquijo, Fausto Arocena, Isidoro de Fagoaga, Jose de Arteche, Miguel Pely, Jose Miguel de Barandiaran, Telesforo de Aranzadi, Angel Irigaray, Joaquin Arbeloa, Jesus Elosegui, Arturo Campion, Domingo Aguirre, A.M. de Labayen, Ignacio Goikoetxea, Juan Garmendia, Luis de Madariaga, Victor Ruiz Añibarro, Jose Estornes Lasa, Federico de Zabala, I. de Sollube, etabar

Dokumentazio zentru ikaragarri garrantzitsua du Auñamendik, euskal liburutegi bat, informazio artxibo eta euskarri grafiko ezberdinez osatua. Nabarmen-tzekoa da gainera bertan dauden milaka eta milaka koloretako diapositibak, guztiak originalak. Entziklopedia osatzeko ateratako euskarri grafikoa dira, eta esan daiteke Estornestarrek Euskal herriko herri, bazter eta txoko guztiak arakatu eta bisitatu zituztela pertsonalki horretarako.

Auñamendi argitaldaria zuzendu zuen Bernardo Estornes Lasak 1958. urte-tik 1999an hil zen arte. Hasieratik argitaldარიaren antolaketa eta prestaketa lanen burua izan zen, baina bi anaiak, Bernardo eta Mariano, izan ziren ekarrekin bazkide gerenteak. Biak hil ondoren (1997 eta 1999), Auñamendiren gidaritza hurrengo belaunaldiak hartu zuen, Bernardoren seme alabek hain zuzen ere, Garikoitz eta Idoia Estornes Zubizarretak. Gaur egun bai Auñamendi argitaldaria eta bai Itxaropena inprentak elkarrekin lanean jarraitzen dute, beraien aurrekoek ereindako ha-ziri eutsi eta garai berriei aurre eginez.

4. Hiru belaunaldi

Unzurrunzugatarren hiru belaunaldik elkarlotu dute Itxaropenaren ibilbidearen zuzendaritza. Aitona, Patxi Unzurrunzaga, aita, Sabin eta semea Pello, gaur egungo burua. Garai bakoitzak ezaugarri ezberdinak izan ditu egoerak oso ezberdinak izan dirrelako. Lehen belaunaldian, Patxik, Itxaropena inprenta moduan sortu bazuen ere, gero argitaletxe lanak ere egin zituen. Garai hartan oso garrantzitsua izan zen gainera argitaletxe papera. Gerra ondorengo urteetan ia bakarrak zirela esan daiteke eta bestetik, garai hartako ezaugarri nagusia zentsuraren kontrola izan zen. Patxik euskararen aurkako arau murriztaile guztei aurre egiten lan egin behar izan zuen.

Bigarren belaunaldia, Sabinekin Itxaropenaren gidaritza frankismoaren amaieran hartu zuen, egoera erabat ezberdina aurrekoarekin alderatuz. Etapa honetan, argitaletxe izaera utzi eta inprenta eta grafikagintzarako apustua egin zuten, garai berri honetan argitaletxe asko sortu baitziren eta zentzu handiagoa baitzuen beraiek zuten esperientzia besteen zerbitzura jartzea.

Itxaropenaren hirugarren belaunaldia Pello Unzurrunzaga da, gaur egun inprentako hariak zuzentzen dituen gizona. Liburugintza eta orokorrean grafikagintza jasaten ari den krisiari aurre egitea egokitu zaio Pellori. Teknologia berriak paperaren presentzia murrizten ari dira eta merkatu estu horretan irauteko estrategia egokiak bilatzea da bere eguneroko ogia.

Garai bakoitzean belaunaldi bakoitzak izan dituen ezaugarri azpimarragarrienak ezagutu ondoren, goazen orain gizon hauek gehiago ezagutzera. Patxi Unzurrunzaga Ugarteburu. Gipuzkoako hiriburuan, Donostian, jaio zen 1906ko abenduaren 14an eta 1984ko apirilaren 14an hil zen Donostian, 78 urte zituela. Bost seme alaben aita. Gazterik hasi zen inprenta-lanetan Diputazioan bertan, eta gero handik Zarautzera joan zen Editorial Vasca Zelaia & Lagunak inprentara.



Zarautz, 1967. Ignacio Eizmendi "Basarri", Juan Garmendia Larrañaga, Manolo Ugarte, Federico Zabala, Bibiano Larramendi, José A. Bello Portu, Francisco Unzurrunzaga, Ramón Moraiz, Antonio Labayen eta Ignacio Mocoroa

Gero dakigun moduan, bere jarduera nagusia Itxaropenara zuzendu zuen. Bere seme Imanolek horrela oroitzen du: “Eskuak tintaz, kaxetatik gillotinara, minervatik planara, tailerrean buzo, bulegoan dotoretsuago; lantegitik irten eta lan-ikideekin tertulia [...]; uda partean itsasoa, neguan mendia [...]”.

Oso gustoko zuen lagunartea eta gainera euskalzale amorratua ere bazen Patxi eta horregatik izan zen Itxaropena euskal idazle askoren bilgunea, eta azkenean harreman estuak egin zituen idazle askorekin.

Hori dela eta 60-70. hamarkadan bere lagun handi Joxe Artetxerekin batera Gipuzkoako Diputazioko Bibliotekan biltzen zen tertuliara hilean behin. Handik bultzata argitaratu ziren Itxaropenan Artetxeren *El abrazo de los muertos* eta Oteizaren *Quosque tandem*. Honez gain, Unzurrunzagak Nazioarteko Editoreen zenbait kongresuetan ere parte hartu zuen: 1956an Erroman, 1962an Bartzelonan, 1968an Amsterdamen eta 1979an Vienan. Ondorioz, Euskal Herriko Editoreen ordezkari izendatu zuten erakundearen.

Bada gertaera gogoangarri bat kongresu hauen harira, Imanol Unzurrunzagak Patxiaren biografia liburuan honela kontatzen duena.

[...] 1968an Amsterdamera joateko pasaportearen eguneratzerakoan arazoak izan zituen Patxi Donostiako Gobernu Zibilean. Zentsurakoan aholkuz, gobernadoreak Espainiatik irteko baimena ukatu zion kongresua amaitu bitartean. Egoera honen aurrean Maria Goikoetxeak Patxiaren emazteak arazoa bere gain hartu eta Gobernadoreari audientzia eskatu zion. Berak bazuela pasaportearen esan zion Gobernadoreari berari eta munduko guztiko kongresisten aurrean azalduko zuela Unzurrunzaga jauna batzarrean ez egotearen zergatia. Azkenean gobernadoreak amore eman eta Patxi amsterdamera joatea lortu zuen Maria emazteak.

Patxi 1972. urtean jubilatuta zenean Donostiara bueltatu zen bizitzera.

Patxiaren seme Sabin Unzurrunzaga Goikoetxea Xemeinen, Bizkaian, jaio zen 1932ko apirilaren 27an eta 2005eko martxoaren 13an hil zen. Itxaropena inprentako gidaritzaren lekukoa 1972. urtean hartu zuen. Honek Itxaropenan egindako lana nabarmendu behar da, batez ere, nahiz eta ardura hau izateaz gain konpromisu handiko gizona izan zen Sabin Unzurrunzaga. Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastola sortu zuten guraso-taldeko partaide izan zen Imanol Muruarekin, Basilio Bergararekin eta beste batzurrekin batera, eta eratu berri zen batzordeko presidentea izan zen lehenengo sei urteetan. Gipuzkoako Ikastolen Federazioa sortu aurreko Bateragile taldeko kidea ere izan zen. Gainera frankismoaren ondorengo lehen legegintzaldi demokratikoetan EAJren ordezkari gisa alkateordea izan zen Zarauzko Udaletxean. Euskal eskola liburu onenaren saria ematen duen Isaac Lopez Mendizabalen epaimahaiko kide ere izan zen 20 urteetan zehar.

Horrelako goxotasunez gogoratu zituen duela bost urte Jose Luis Padronek Gargola aldizkarian Itxaropenan lan egindako guztiak: “Eskuak herriz eta tintaz, kaxetatik mundura, gillotinatik hizkuntzara, minervatik gizakira, Itxaropena tailerrean literaturaren iragana, oraina eta geroa. 75 urtez. Zorionak arduradun eta langile guztiei”.

5. Sariak

Gerra osteko zentsurari aurre eginez, euskarazko liburuak argitaratu izana eta euskal literaturgintzaren metxari eustea izan da Itxaropena eta Unzurrunzaga sendiaren meritua; ondorioz, egindako lanaren errekonozimendu bat baino gehiago jasotzen ari da azken urte hauetan, egun inprenta lanak egiten jarraitzen duen enpresak. Zarauzko Udalak 2009an Ohorezko Domina eskeini zion euskal kulturaren arloan egindako lanagatik.

Urte bat geroago, Euskal Liburuaren Gauean ‘Dabilen Elea 2010’ saria jaso zuen Itxaropenak Euskal Editoreen Elkarteak (EEE), Euskal Idazleen Elkarteak (EIE), Euskadiko Ilustratzaileen Elkarte Profesionalak (APIE-EIEP), Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarteak (EIZIE) eta Galtzagorrik izendatzen duena. Horrela, 36ko gerraren ostean argitaratutako *Kuliska* Sortarekin egindako lana saritu nahi izan zen, gerra osteko euskal liburugintzaren lehen urratsak izan baitziren. *Kuliska* sortak argitara emandako liburuen laginak irakurri zituzten saria banatu aurretik: Hemingwayren *Agurea eta itsasoa* eleberriko Jon Artexeren hitzaurreko zati batzuk, eta Jon Stefan Svensson-en *Noni eta Maniren* eta Xabier Lizardiren *Biotz-begietaneko* pasarteak irakurri ziren ondoren. Jarraian, Easo abesbatzako haurrek kantaldia eskaini zuten. Ondoren, Mikel Unzurrunzaga “Makala” DJak, Patxiren birilobak eta Martin Etxauri “Txo” DJak inprenta bateko irudi eta soinu iradokitzaileekin, makinaren soinua sortu zuten musikarekin uztartuz. Azkenik, Joxe Mari Torrealdai eman zion saria Pellori.

Berriki, 2011ko maiatzaren 6an, ‘Carlton Argital’ saria hartu zuen Bilbon Editoreen Gremioen eskutik Unzurrunzugatarren hirugarren belaunaldiko eta egun inprimategiko gidaritza daraman Pellok. Hitz hauekin eskertu zuen saria: “*Kultura galtzen badugu, zentzua ere galtzen dugu eta ondorioz gure identitatea galtzen dugu*”. Sari guzti hauek jasotzeak ilusio handia egiten dio Pellori, baina sentsazio mikatz bat ere sortzen zaio barrenean, bera errekonozimendu urte hauek bizitzen ari baita, eta ezinbestean garai gogorrak bizi izan zituzten haiek etortzen baitzaizkio gogora:

Pena ematen dit aitonak, Patxik, edo aitak eta osabak sari hauek jaso ahal ez izateak; dudarik gabe asko poztuko lirateke. Haiek bizi izan baitzituzten garai gogorrenak.